2018ko ABUZTUAREN 22ko UDALBATZARRA

PLENO DE 22 DE AGOSTO DE 2018

BERTARATUAK / ASISTEN:

ALKATEA / ALCALDE: JOSU IRATZOKI AGIRRE

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES Y CONCEJALAS:
IXONE TELLECHEA URANGA, AITOR ELEXPURU EGAÑA, MIKEL LERTXUNDI KORTA, AITOR IANTZI GOIENETXE, JOSE MIGUEL GORRIA VICUÑA, JOSE ANTONIO OYARZABAL IRIBAS, RAQUEL QUIROGA TAPIA, JUAN LOSA OCARIZ.

IDAZKARIA / SECRETARIA: PILAR CHUECA INTXUSTA.

BERTARATU EZ DIRENAK / NO ASISTEN:
Mª ARANZAZU ZUBIETA OCHOTECO (lana / trabajo), GERMAN CASTILLO LAZCANO-TEGUI (familia).

| | |
|---|---|
| Tokia: BERAko Herriko Etxea<br>Eguna: 2018-08-22<br>Ordua: 19:35<br>Bilera-mota: ohikoa, 1. deialdia | Lugar: Casa Consistorial de BERA<br>Día: 22-08-2018<br>Hora: 19:35<br>Tipo sesión: ordinaria, 1ª convocatoria. |
| TRATATZEKO GAIAK: | ASUNTOS A TRATAR: |
| 1.- AZKENEKO AKTAK ONARTZEA.- | 1.- APROBACIÓN ACTAS SESIONES ANTERIORES.- |
| 2018.eko ekainaren 13an eta 27an egindako bileren aktak ikusirik, aho batez, ONARTU DITUZTE. | Vistas actas de las sesiones celebradas el día 13 y 27 de junio de 2018, por unanimidad SE APRUEBAN. |

2.- U.U.16.1ean JARDUKETA SISTEMA ALDATZEA, HASIERA BATEZ ONESTEA.

*Alkateak gaia azaldu eta Idazkariak espedientea eta prozedura. Honen ondoren, aho batez, honako erabaki hau hartu dute:*

2002ko urriaren 3an eginiko bilkuran Gobernu Batzordeak PILAR ACUINAGA ARRIBILLAGA ETA BESTE BATZUK aurkeztutako UU16.1eko Borondatezko Birzatiketa Proiektua behin betikoz onetsi zuen.

2006ko apirilaren 12an Udal Tokiko Gobernu Batzordeak egindako bilkuran lehen aipatutako interesatuek aurkeztutako UU16.1eko Urbanizazio Proiektua behin betikoz onetsi zuen, honako oharren arabera:
- Oztopo Fisiko eta Sentsorialei buruzko arautegia bete behar da.
- Birzatiketa Batzordea osatu beharko da eta behar den eskritura udaletxean aurkeztu obrak hasi baino lehen.

Exekuzio unitate hau gauzatzeko epeak gainditua, 2011ko urtarrilaren 20an Udalak jarduketa sistema aldatzeko espedientea hasiera batez onartu zuen baino 2011ko maiatzaren 19an artxibatzea erabaki zuen.

2017ko azaroaren 16an JAVIER MIQUELPERICENA TELLECHEA eta 3 GEHIAGOK idatzia aurkeztu zuten non UU16.1ean bere egunean eginiko prozedurari jarraikiz Kooperazio sistemara aldatzeko behin betiko onespena ematea espediente horri eskatzen zuten.

2018ko urtarrilaren 25ean JOSE I. ERRANDONEA AGUINAGAk idatzia aurkeztu zuen non Konpentsazio Batzordearen Estatutuen proiektua erantsi eta izapidetu zein onartzea eskatzen zuen.

Ikusirik, honi buruz 2018ko otsailaren 15 eta 22an Nasuvinsak eginiko txostenak, Udalak 2018ko martxoaren 14an eginiko Osoko

2.- APROBACIÓN INICIAL MODIFICACIÓN SISTEMA DE ACTUACIÓN EN LA U.U.16.1

*El Alcalde explica el asunto y la Secretaria el expediente y procedimiento. Tras ello, por unanimidad adoptan el siguiente acuerdo:*

En sesión celebrada el 3 de octubre de 2002, la Comisión de Gobierno aprobó definitivamente el Proyecto de Reparcelación Voluntaria de la UU16.1 presentado por PILAR AGUINAGA ARRIBILLAGA Y OTROS.

El 12 de abril de 2006, en sesión celebrada por la Junta de Gobierno Local se aprobó definitivamente el Proyecto de Urbanización de la UU16.1 presentado por las personas interesadas, antes citadas, con las siguientes indicaciones:
- Deberá cumplirse con la normativa sobre barreras físicas y sensoriales.
- Deberá constituirse la Junta de Reparcelación y presentar la escritura correspondiente en el Ayuntamiento antes del inicio de las obras.

Superados los plazos de ejecución de esta unidad, el Ayuntamiento el 20 de enero de 2011 aprobó inicialmente el expediente para cambio del sistema de ejecución pero el 19 de mayo de 2011 decidió su archivo.

El 16 de noviembre de 2017 JAVIER MIQUELPERICENA Y 3 MAS presentaron escrito en el que solicitaban que, en base al procedimiento iniciado en su día, se acuerde la aprobación definitiva del expediente de modificación del sistema de actuación de la UU16.1 al sistema de cooperación.

Con fecha 25 de enero de 2018 JOSE I. ERRANDONEA AGUINAGA presentó un escrito en el que adjuntaba el proyecto de Estatutos de la Junta de Compensación y solicitaba su tramitación y aprobación.

Vistos informes emitidos al respecto por Nasuvinsa de fechas 15 y 22 de febrero de 2018, el Ayuntamiento en el Pleno celebrado el 14 de

bilkuran, zera erabaki zuen:

*1) JOSE I. ERRANDONEA AGUINAGAk aurkeztutako Konpentsazio Batzordearen Estatutuen proiektua hasiera batez ez onartzea, lehen emandako arrazoiengatik eta lehen aipatuko 2018ko otsailaren 22an Nasuvinsak eginiko txostenean agertutako arrazoiarengatik.*

*2) Interesatuaei zera adieraztea:*
*2.1) UU16.1eko urbanizazio proiektua, 2006ko apirilaren 12an onartutakoa, gauzatzeko Birzatiketa Batzordea osatzeko eskriturak aurkeztu behar dituzte.*

*2.2) Erabaki hau hartzen denetik hasita 2 hilabeteko epean, ez ba dira urbanizazio obrak hasi U.U.16.1ean, Udalak, bere kabuz, unitate horretan egun dagoen jarduketa sistemaren ordez beste jarduketa sistema jarriko du, urbanizazioaren betebeharra bermatuko duena."*

marzo de 2018 acordó:

*1) No aprobar inicialmente el proyecto de Estatutos de la Junta de Compensación presentado por JOSE I. ERRANDONEA AGUINAGA por las razones antes aducidas y las expresadas en el informe de Nasuvinsa de 22 de febrero de 2018, anteriormente citado.*

*2) Indicar a las partes interesadas lo siguiente:*
*21.) Deberán presentar las escrituras de constitución de la Junta de Reparcelación con la finalidad de ejecutar el proyecto de urbanización aprobado el 12 de abril de 2006.*

*2.2) Si en el plazo de 2 meses, desde la recepción de este acuerdo, no se iniciaran las obras de urbanización en la U.U.16.1 el Ayuntamiento, de oficio, sustituirá el sistema de actuación actual en esa unidad por otro sistema de actuación que garantice el cumplimiento del deber de urbanización."*

2018ko maiatzaren 25ean, Jose I. Errandonea Aguinagak idatzia aurkeztu zuen non alegatzen zuen Udalak eginiko errekerimendua ezin izan du bete zeren beste gainontzeko jabeak ez ziren bertaratu Notaritzan, beraz, ezin izan dute eskatutako Birpartzelazio Junta osatu. Hori dela eta, erantsitako UU16.1eko Konpentsazioaren Batzordearen Estatutuen proiektua izapidetu eta onartzeko eskatu du.

Con fecha 25 de mayo de 2018, José I. Errandonea Aguinaga presentó escrito alegando que no ha sido posible atender al requerimiento municipal ya que el resto de propietarios y propietarias no han comparecido en la Notaría y, por lo tanto, no ha sido posible constituir la Junta de Reparcelación exigida por lo que solicita la tramitación y aprobación del proyecto de Estatutos de la Junta de Compensación de la Unidad Urbana 16.1 que adjunta.

Ikusirik, Nasuvinsak pasa den uztailaren 17an honi buruz eginiko txostena.

Visto informe de Nasuvinsa de fecha 17 de julio pasado emitido al respecto.

Ikusirik, 2018ko abuztuaren 7an dagokion izapidetzeari buruzko txostena Idazkaritzak egina.

Visto informe de Secretaría de 7 de agosto de 2018 sobre la tramitación correspondiente.

Izanik, uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuak (Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen Testu bategina) 96.3.e) artikuluak diola jarduketan

Siendo que el artículo 96.3.e) del Decreto Foral Legislativo 1/2017, de 26 de julio (Texto Refundido de la Ley Foral de Ordenación del Territorio y Urbanismo -TRLFOTU-) señala que

aurreikusitako urbanizazio obra guztiak ordaintzea eta, hala badagokio, exekutatzea hirilurzoru finkatugabearen jabeen betebeharra dela.

es obligación de los propietarios del suelo urbano no consolidado ccostear y, en su caso, ejecutar todas las obras de urbanización previstas en la actuación correspondiente.

Izanik, laga, berdinbanatu eta urbanizatzeko betebehar urbanistikoak betetzeko epeak soberan gainditu direla.

Siendo que los plazos fijados para el cumplimiento de los deberes urbanísticos de cesión, equidistribución y urbanización se han superado con creces.

Kontuan hartuz unitate honetan (UU16.1) hasia zen jarduketa-sistema borondatezko birzatiketa izan dela eta, orain, konpentsazio sistemaren arabera izapidetzea eskatzen dela, beraz, lehenbiziko, jarduketa sistema aldatzea dagokiola.

Teniendo en cuenta que el sistema de actuación iniciado en esta unidad (UU16.1) es el de reparcelación voluntaria y, ahora, se solicita la tramitación según el sistema de compensación, procede, primeramente, el cambio de sistema de actuación.

Izanik, 1/2017 Legegintzako Foru Dekretu horren 158.3 artikuluk zera diola:

Siendo que el artículo 158.3 del citado Decreto Foral Legislativo 1/2017 establece que:

*“Jarduketa pribatuko sistemaren bat ez bada garatzen ari planeamenduan edo exekuzio unitatearen mugaketan lagatzeko, ekitatez banatzeko eta urbanizatzeko betebeharrak betetzeko ezarritako epeen arabera, Administrazioak erabaki beharko du, bere kabuz edo kasuan kasuko sistemaren arabera horretarako eskubidea duten partikularrek eskatuta, jarduketa-sistema horren ordez jarduketa pribatuko beste bat, exekuzio unitatearen garapena betetzea bermatuko duena, edo jarduketa-sistema publiko bat jartzea, 1. apartatuan xedatutakoaren arabera.”*

*“Cuando un sistema de actuación privada no estuviese siendo desarrollado conforme a los plazos previstos en el planeamiento o en la delimitación de la unidad de ejecución para el cumplimiento de los deberes de cesión, equidistribución y urbanización, la Administración deberá acordar de oficio o a instancia de los particulares legitimados para ello, según el sistema de que se trate, la sustitución del sistema de actuación por otro de actuación privado que garantice el cumplimiento del desarrollo de la unidad de ejecución o por un sistema de actuación público conforme a lo dispuesto en el apartado 1”.*

Hirigintza eta Lurraldearen Antolamenduari buruzko Foru Legearen Testu Bategina den 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 143.2, 157., 158.3, 74. eta 76. artikuluekin bat etorriz.

De acuerdo con lo establecido en el artículo 143.2, 157, 158.3, 72 y 74 del Decreto Foral Legislativo 1/2017, Texto Refundido de la Ley Foral de Ordenación del Territorio y Urbanismo.

Orain arte adierazitakoarengatik, ERABAKI DUTE:

Por todo lo manifestado hasta ahora, SE ACUERDA:

1) U.U.16.1eko jarduketa sistema aldatzeko espedientea, borondatezko birzatiketa sistematik konpentsazio sistemara, hasiera batez onestea.

1) Aprobar inicialmente el expediente de modificación del sistema de actuación de reparcelación voluntaria de la U.U.16.1 al sistema de compensación.

2) Aipatu aldaketa jendaurrean jartzea 20 egu-

2) Someter a exposición pública el citado expe-

neko epean, Nafarroako Aldizkari Ofizialeko iragarkiaren bidez Iragarki Taulan eta Nafarroan editatzen diren egunkarietan, bederen, argitaratua.

diente durante el plazo de 20 días, mediante anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y publicado, al menos, en los diarios editados en Navarra y en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento.

3) Erabaki hau Nasuvinsaren 2018ko uztailaren 17ko txostenarekin batera interesatuei bidaltzea. Aldi berean, adieraztea izapide-egintza denez ezin dela inolako errekurtsorik jarri.

3) Remitir este acuerdo a las partes interesadas, junto con el informe de Nasuvinsa de 17 de julio de 2018 indicándoles que por tratarse de un acto de mero trámite no cabe recurso alguno.

3.- EUSKARALDIA UDAL BARRENEAN SUSTATZEKO ERAKUNDE-ADIERAZPENA.

3.- DECLARACIÓN INSTITUCIONAL PARA PROMOCIONAR EUSKARALDIA DENTRO DEL MUNICIPIO.

*Aitor Elexpuru zinegotziak erakunde-adierazpena irakurri du eta, aho batez, onartu dute honako testua izanik:*

*El concejal Aitor Elexpuru lee la declaración institucional y, por unanimidad, se aprueba, siendo el texto el siguiente:*

Nafarroan bi hizkuntza ditugu ofizialak: euskara eta gaztelania. Begi bistakoa da, ordea, bi hizkuntzok ez daudela oreka egoera batean, ez esparru publikoan ez eta gizartean ere: gaztelania da nagusi. Uste dugu orain arteko ahaleginarekin bakarrik ez direla bi hizkuntzak parekatuko, indar gehiago jarri behar dugula hizkuntza-berdintasuna bultzatzeko; euskara lehenetsi behar dugula, alegia. Izan ere, gizarte-, genero- eta hizkuntza-berdintasuna lortzea dugu helburu, eta, horrenbertzez, horretara bideratutako urratsak egitea.

Dos son las lenguas oficiales en Navarra, el euskera y el castellano. Sin embargo, resulta evidente que ambas lenguas no se sitúan en un plano de equilibrio y que tanto en la esfera pública como en la social predomina el castellano. Consideramos que con la mera continuación de las actuales prácticas es imposible alcanzar un escenario de paridad; creemos que debemos dar mayor impulso a la igualdad lingüística, dando, para tal fin, prioridad al euskera. Uno de los retos es alcanzar la igualdad lingüística, social y de género y, en consecuencia, dar los pasos necesarios para ello.

UNESCOrentzat ere munduko hizkuntza-ondarea zaintzea eta hizkuntza gutxituak garatu ahal izatea da mende honek duen erronkarik garrantzitsuenetako bat. Izan ere, 7.000 hizkuntza inguruk osatzen dute munduko hizkuntza-ondarea. Munduko biztanleen % 97k hizkuntzen % 4 hitz egiten du ama-hizkuntza gisa, eta biztanleen % 3k hitz egiten du hizkuntzen gainerako % 96a. Horrela, bada, hizkuntza guti batzuk dira nagusi munduan, hiz-

Asimismo, UNESCO considera que uno de los retos más importantes de este siglo es preservar el patrimonio lingüístico mundial y poder desarrollar las lenguas minorizadas. Cerca de 7.000 lenguas componen el patrimonio lingüístico mundial. El 97 % de la población mundial tiene como lengua materna el 4 % de las lenguas existentes, y el 3 % de la población, el 96 % restante. Por lo tanto, son muy pocas las lenguas mayoritarias en el mundo, y conviven con

kuntza txiki eta gutitu askorekin elkarbizitzan.

Nafarroan ere hizkuntza asko hitz egiten dira eta ikasi beharko dugu aniztasun hori egoki kudeatzen; baina bizikidetza osasuntsu baterako lehen urratsa euskara eta gaztelaniaren arteko elkarbizitza orekatua lortzea da.

Norabide horretan, euskara biziberritzeko beharrezkoa dugu norbanakoen, gizartearen eta administrazioen arteko ahaleginak uztartu eta elkar elikatzen jarraitzea, eta, era berean, premiazkotzat jotzen dugu hizkuntza gutxituen aldeko hizkuntza-arau sozial berriei ere lekua egitea.

Guztion elkarlanari esker, euskararen normalizazio-prozesuak ibilbide oparoa izan du azken hamarkadetan. Emaitza aipagarria da, baina, prozesu guztiek bezala, argi-itzalak ditu; bada pozik egoteko arrazoirik, baita kezkatzeko daturik ere.

2016. urtean egindako VI. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, ezagutza-datuek nabarmen egin dute goiti azken hamarraldietan, baina erabilera ez da neurri berean hazi.

Beraz, euskararen normalizazio-prozesua inflexio-puntuan dago, fase baten amaieran eta bertze baten atarian. Aro berri horretan, agerikoa da erabileran jarri beharra dagoela indarra.

Euskararen ulermenari ez diogu behar bezain bertzeko garrantzirik eman; izan ere, erabilerearen korapiloa askatzeko gako nagusi bat ulermena da. Alegia, euskararen ulermenaren balioa azpimarratuz gero, ulermena erabat zabalduz gero, euskararentzat eta herritarrontzat erabilerarako eremu zabal eta emankorra zabalduko dugu. Kontuan hartzeko datu bat: Nafarroako udalerri euskaldunetan ulermena % 80tik gorakoa da.

**Euskaraldia, 11 egun euskaraz, azaroaren**

multitud de lenguas minoritarias y minorizadas.

En Navarra se hablan también muchas lenguas, y tendremos que aprender a gestionar adecuadamente esa diversidad. No obstante, el primer paso para una convivencia saludable es conseguir que el euskera y el castellano alcancen una situación de equilibrio.

En ese sentido, es preciso aunar los esfuerzos entre las personas, la sociedad y las administraciones y seguir sustentándose mutuamente; del mismo modo, resulta imprescindible hacer un sitio a las nuevas normas lingüísticas sociales en favor de las lenguas minorizadas.

El proceso de normalización del euskera ha tenido un recorrido fructífero en las últimas décadas, gracias a la colaboración de todos. El resultado ha sido destacable, pero, como en todos los procesos, ha tenido sus luces y sus sombras; hay motivos para estar satisfechos y también datos preocupantes.

De acuerdo con la VI Encuesta Sociolingüística realizada en 2016, en las últimas décadas los datos de conocimiento han aumentado considerablemente, sin embargo, el uso no ha crecido en la misma medida.

Por lo tanto, el proceso de normalización del euskera se encuentra en un punto de inflexión, al final de una fase y al inicio de otra. En esa nueva etapa, es evidente que hay que incidir en el uso de la lengua.

No le hemos dado la importancia necesaria a la comprensión del euskera, y, para poder deshacer el nudo del uso de la lengua, la comprensión es una clave principal. Así, si subrayamos el valor de la comprensión del euskera, si extendemos completamente la comprensión, abriremos un espacio amplio y productivo para el euskera y para toda la ciudadanía. Un dato a tener en cuenta: en la mayoría de los municipios vascos de Navarra el nivel de comprensión del euskera es superior al 80 %.

**Euskaraldia, 11 días en euskera, del 23 de**

**23tik abenduaren 3ra**

Testuinguru horretan, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Topaguneak, Nafarroako Gobernuarekin eta bertze hainbat eta hainbat eragilerekin elkarlanean, abian jarri dute Euskaraldia ekimena. Gure udalerria ere buru-belarri sartu da, eta ekinbidea burutzeko batzordeak lanean dihardu.

Ekimen horretan 11 egunetan hizkuntza-praktika berri bat gauzatzera gonbidatuko ditugu herritarrak. Ariketa horren subjektuak 16 urtetik goitiko helduak izango gara, eta 11 egunez hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketa kolektibo bat egitea da proposamena, indarra ulermenean jarrita. Bi subjektu-mota bereizi dira: *Ahobizi eta Belarriprest.*

*Ahobiziek, 11 egun horietan,* euskarari eutsiko diote solaskideak euskaraz ulertzen duen guztietan, eta, *Belarriprestek*, aldiz, solaskideak beraiekin euskaraz aritzera gonbidatuko dituzte, nahiz eta *Belarriprestak* berak euskaraz nahiz gaztelaniaz erantzun.

Ekimenaren helburua hau da, bertzeak bertze: ariketa praktiko horren bidez ikusaraztea eta biziaraztea hizkuntza-ohiturak euskararen erabileraren mesederako aldatzen ahal ditugula, eta, ahal dela, 11 egun horiek igaro eta gero, hizkuntza-praktika berri horiei eustea, herrian bertan zein herritik kanpo.

Horregatik guziagatik, honako hau aurkezten dugu:

**ERAKUNDE ADIERAZPENA**

BERAko Udalak honakoa adierazi nahi du:

• Udalbatzak bat egiten du Euskaraldiarekin eta ekimenaren sustatzaile izanen da.

**noviembre al 3 de diciembre**

En ese contexto, la Viceconsejería de Política Lingüística del Gobierno Vasco y Topagunea, en colaboración con numerosos agentes como el Gobierno de Navarra, han puesto en marcha la iniciativa Euskaraldia. Nuestro municipio también se ha implicado con todo empeño, y la comisión encargada de desarrollar la iniciativa ya está trabajando en ello.

Vamos a invitar a la ciudadanía a realizar durante 11 días una nueva práctica lingüística. Las personas mayores de 16 años seremos los sujetos de este ejercicio, y la propuesta consiste en realizar un ejercicio colectivo durante 11 días para cambiar nuestros hábitos lingüísticos, haciendo hincapié en la comprensión. Se han diferenciado dos tipos de participantes: *Ahobizi* y *Belarriprest*.

Durante esos 11 días, las personas *ahobizi* hablarán en euskera con todas aquellas que lo entiendan, y las personas *belarriprest,* en cambio, invitarán a sus interlocutores a que se dirijan a ellas en euskera, independientemente de que les contesten en euskera o en castellano.

El objetivo de la iniciativa es visibilizar y vivir en primera persona, mediante este ejercicio práctico, que es posible transformar los hábitos lingüísticos, y, en la medida de lo posible, mantener las nuevas prácticas lingüísticas después de esos 11 días.

Por todo ello, presentamos esta declaración:

**DECLARACIÓN INSTITUCIONAL**

El Ayuntamiento de BERA quiere manifestar que:

• El Pleno Municipal se une a la iniciativa Euskaraldia y se hará cargo de su promoción.

Horrenbertzez, erantzukizunez eta eredugarritasunez jokatzeko konpromisoa hartzen du.

Para ello, se compromete a actuar con responsabilidad y ejemplaridad.

• Ordezkari politikoon egiteko nagusia izango da Euskaraldiaren markoan eta bereziki udal barrenera begira ekimena zabaltzea. Horrenbertzez, ekimen honetan ahalik eta *Ahobizi* eta *Belarriprest* gehien aktibatzeko urratsak eginen ditugu, arduradun politikoak zein langileak izan.

• La función principal de los responsables políticos será difundir la iniciativa en el marco del Euskaraldia y, especialmente, dentro del ayuntamiento. Con ese fin, dará los pasos necesarios para activar el mayor número de personas *ahobizi* y *belarriprest*, tanto entre los responsables políticos como entre la plantilla municipal.

• *Ahobiziok* euskara ulertzen duten guziekin euskaraz aritzeko konpromisoa hartzen dugu.

• La personas *ahobizi* nos comprometemos a hablar en euskera con quienes lo entienden.

• *Belarriprestok* gainerakoak gonbidatuko ditugu gurekin euskaraz egin dezaten, nahiz eta guk euskaraz edo gaztelaniaz erantzun.

• Las personas *belarriprest* invitaremos a nuestros interlocutores a que nos hablen en euskera, aunque nosotros les contestemos en euskera o en castellano.

• Udalak neurriak hartuko ditu hizkuntza-praktika horiek posible egiteko eta etorkizunean eutsi ahal izateko.

• El Ayuntamiento adoptará medidas para hacer posible esas prácticas lingüísticas y poder mantenerlas en el futuro.

• Udalak, ekimenaren sustatzaile gisa, udal barruan ez ezik, udalerrian ere herritarrak gonbidatuko ditu Euskaraldia ekimenean parte har dezaten, eta izena emateko bideak erraztuko ditu.

• El Ayuntamiento, como promotor de la iniciativa, invitará tanto al personal y a los políticos del Ayuntamiento como a la ciudadanía en general a participar en la iniciativa Euskaraldia, y facilitará la inscripción.

• Udalak bat egiten du ekimena Euskal Herriko bertze hainbat eragilerekin, elkarlanean eta batera garatzearekin.

• El Ayuntamiento está de acuerdo en desarrollar la iniciativa de forma conjunta, colectiva y simultánea en Euskal Herria, con el fin de promover una política unificada a nivel territorial.

4.- BANDOAK ETA ALKATEAREN EBAZPENAK.-

Honako bando eta Alkatetzaren ebazpen hauetaz jakinen gainean gelditu dira:

1) Bandoak: B15/2018tik B17/2018ra.

2) Ebazpenak: 2018ko ekainaren 7ko 89. ebazpenetik 2018ko abuztuaren 13ko 147 .era arte.

4.- BANDOS Y RESOLUCIONES DE ALCALDÍA.-

Quedan enteradas y enterados de los siguientes bandos y resoluciones de Alcaldía:

1) Bandos: del B15/2018 al B17/2018.

2) Resoluciones: De la resolución nº 89 de 7 de junio de 2018 a la nº 147 de 13 de agosto de 2018.

5.- ESKARIAK ETA GALDERAK. BESTE UDAL ORGANOEN KONTROLA.

Ez dira burutu.

Besterik gabe, Alkateak bilera bukatutzat eman du 20:10etan.

5.- RUEGOS Y PREGUNTAS. CONTROL DE LOS DEMÁS ÓRGANOS DE LA CORPORACIÓN.

No se producen.

No habiendo más asuntos, el Alcalde levanta la sesión a las 20:10 horas.

| | |
|---|---|
| O.E. ALKATEA/ V.B. EL ALCALDE<br>Josu Iratzoki Agirre | IDAZKARIA/ LA SECRETARIA<br>Pilar Chueca Intxusta |